

Lili zaillak, or-emen, bisutsak leitura; erio-egal otsa soillik da nabari, oro ixil-loan mende: abe, arri-meta; ba-dogu orraitño, norbait egalari.

Biotz-senak ba-igarren  
zerbait ezti zana:  
Itxaropen leunaren  
goitiko laztana.

\* \* \*

Joranez itxasori mosuka eguzki...  
Arratsa dil geldiro: gauak bear toki...  
Ezkillak zaratoska,  
il-eresi joka...

IL INTZAN...

Il intzan, il intzan i bere,  
ene anaitxo maitena;  
ta barruan bai dot josita  
zoritztar orren eztena.

\* \* \*

Ots gaur ik, ereskin negarti; poztuna ixo euk otsaldi

Goiz batez, alai, jolastean  
eriok atza ezarri;  
ta erbia lakioan lez,  
orra, iltzer, aika, larri.

Azkenik... il intzan, il, gaixo!  
Errukiz ^ozak arkaitzak,  
txori ozenak txintaz ixil,  
oiñaz dardarra zugatzak.

Ezbear ori jakitean,  
amaren suzko negarra...  
ta ire anai zorige onen  
biotz estanda bearra!!!

Gabaz, ostera, gora adi nik;  
—izarra dakit pozgarri—  
ortxe, ire atsegin isla,  
ortzian, dakusat sarri.

GAZTARO

Bizitz-mailladian ba-da gelune bat  
gizonok errotsu maitatzen doguna;  
gaztarro sorgiña, goitiko altxorra,  
eskera iarioka barre dagiskuna.

Baiña oar, Gazte; ikuskezu ondo:  
len loran egoan sagasti mardula  
orra ainbarik orain; jtunean datza,  
soil, iigar, bizige, il·zapi, gain daula

4

Gorbei ez daukagu beti txapel zuri  
ezta Eretza be odoi-moltzo arrez.  
Aro ori laburra dok, iraitzekoa;  
zerbait atsedendu, ta jarrai bearrez,

Baiña ik, kaskarin lez ergel, eugan dagi  
«Poz-aro yoagu, betor atsegia;»  
irrits-ala, josta-ardoa dedagun,  
azkeak gaitean oian-sai adiña».

Ta besteratuko aun erio-untzi  
nundikan dabilen bai al dakik, gero?  
Ara: gaur, lurruna-bide, bizkor gabiz;  
ainbeste ostera yagizak uñero.

Ardurage ori, abil bildurpean.  
Untzi gaizkor ori el oi dok ixiltsu,  
ebasle gisan, ta txisturik jotzeka.  
Bide-zorroa gert ez-ta, dei ba'zaitu?

Zorro-gertokia ba-dogu arean;  
masti beti jator, —Eleiza kistarria—.  
An sar ta gabiltzan, naitara dastatuz  
aienen odola, —jainkozko eskarra—.

### ILLUNPEAN ZEAR

Illunpean zear zurbil doaz  
senar-emazte bi gazteak;  
ibilmin doaz ta dardarti,  
etsai baltzaren bildurpean  
gorputz-arimak izu gorri;  
izarrak goian dizdiz illa,  
arnas-ots baten basa-pizti.

Alboan zabal eremua...  
Autsa arrotuaz dabiltz azkar;  
axerdak dardar aize ikutuz,  
otoitza yake arei ezti,  
ezpan ertzean eder urtuz;  
aspertu barik triki-traka,  
biotz-jario alkar ustuz.

Asto gaiñean doa andrea,  
larrosa begi biak ñirñir;  
bular ondean daroa aurra,  
ama baiño be ederrago,  
eztia baizen leun-samurra;  
auzoan doa, pausu lerden,  
kemen aundiko, zut, senarra.

Noizka gazteak biotz baikor  
emaztea nai dau poztazo.  
Urrun, goia asi yake urdintzen,  
baita be uri baten torre  
t'etxe garaiak argiratzen.  
Jose ta Mari dira, igesi,  
Aigiton raiño laster eltzen.

### LARROSA LEGOR

Ene biotz edermin, goazen atera  
egarri bizi au pizkat arintzera.

Negu buru soil ta arnas otza joan da-ta,  
gabiltzan landara aize billa eta arbazta.

Zelaien loratzea! Oro erne-naia:  
Izadi amandreren berbizte garaia.

Dana bizitza barri. Lurraren antzalda!  
Negu'k illik eukana barriro biztu da.